



2009KO URTARRILAREN 29KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko urtarrilaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Felix Urkola Iriarte zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman eta esaten du H.J:A: 12ko (Enpaundi) Plan Partzialaren puntua eguneko gai zerrendatik atera egiten duela, txosten tekniko bat falta dela konturatu delako eta hirigintza batzordean egingo den azterketa sakonago bat eskatzen duelako.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2008ko azaroaren 27an eta 2008ko abenduaren 18an egindako bilkuretako aktak.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du azaroaren 27ko aktaren X. puntuan, beraiek hitzegindakoan zera esan zutela: espero zutela akordio hau hartzean zabal zedila beste udal batzuetara ekimen hau gure udalerrri guztietatik, kaleetatik, ohorezko akordioetatik, eta abarretatik erahilketagatik kondenatuak izan diren pertsona guztiak kentzeko eta idatzi den bezala badirudiela beraiek zabaltze hori beste udalerrri batzuetara akordioari soilik zegokionean esan zutela eta beraiek gehiago hartzen zutela.

Hau esanda gainontzea aipatu aktak idatzita dauden moduan onartzen dira bertaratutako guztien aldeko botuekin.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARERIAKO LIKIDAZIOA DEN OBRA EGIAZTAGIRIAN ZUZENKETA.-

2008ko abenduaren 18an egindako Osoko Bilkuran Aleria eraikinaren eraikuntza lanen likidazioa den 22. obra-egiaztagiria onartu zen baina onartutako obra-egiaztagiri

...///...

horretan akatsa zegoela konturaturik, akats hori konpondu eta berriro osoko bilkura honetara aurkezten da bere onarpenerako.

Akatsa zen likidazioa den obra-egiaztagiriari segurtasun eta osasun kapitulua jar-tzea falta zitzaiola, partida hau mila eta hogeita hiru euro eta zortzi zentimo (1.023,08 €) izanik eta beraz likidazioa den 22. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEI EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMOtakoa (108.840,25 €) da.

Osoko Bilkurak, aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikinaren eraikuntzaren zuzendutako 22. obra-egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

IV.- ARERIAKO HOBKUNTZEN FAKTURA.-

Jarraian Areria eraikinaren eraikuntzan proiektuz kanpo egin diren hobekuntzen faktura aurkezten da osoko bilkurara bere onarpenerako.

Hobekuntza hauek Hirigintza Batzordean aztertuak izan dira. Fakturaren zenbate-koa EHUN ETA HOGEITA HAAMZAZPI MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA SEI ZENTIMOtakoa (137.562,06 €) da.

Osoko Bilkurak, hobekuntza hauek aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partai-de guztien aldeko botuekin, faktura hau onartzea erabakitzen du.

V.- 9.1 E.U.REN (ZUBIAURRE ERDIKOA) XEHETASUN AZTERKETA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9. Hirigintza Jarduketa Areako 9.1 Egikaritze Unitatearen -Zubiaurre Erdikoa- Xehetasun Azterketari 2008ko abenduaren 15eko Alkate-tzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Miguel Maria Arakama Mujika eta Xabier Murumendiaraz Aranburuk sustatu dute eta Pedro Etxa-niz Rebaque, Ana Crespo Amado eta Javier Reguera Ardanza arkitektoek idatzitakoa da.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hogeit eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9. Hirigintza Jarduketa Areako 9.1 Egikaritze Uni-tatearen -Zubiaurre Erdikoa- Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

VI.- 8 H.J.A.KO A.20.1 GUNEKO (ELOSEGI 32) XEHETASUN AZTERKETA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 8. Hirigintza Jarduketa Areako A.20 Guneko -Elosegi 32- Xehetasun Azterketari 2008ko maiatzaren 7ko Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Lazkaoko Areria Kultur Bil-guneak sustatu du eta Koldo Telleria Andueza arkitektoak idatzitakoa da.

...///...



...///...

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hogeï eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 8. Hirigintza Jarduketa Areako A.20 Guneako -Elo-segi 32- Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

VII.- 8 H.J.A.KO (GUNE HISTORIKOA) BENEDITARRETAN XEHETASUN AZTERKETA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 8. Hirigintza Jarduketa Areako -Gune Historikoa- Beneditarretan Agirien Euskal Artxibategia eraikitzeko Xehetasun Azterketari 2008ko urriaren 20ko Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Udalak berak sustatu du eta udal arkitekto aholkulariek idatzitakoa da.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hogeï eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, aho batez, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 8. Hirigintza Jarduketa Areako -Gune Historikoa- Beneditarretan Agirien Euskal Artxibategia eraikitzeko Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

VIII.- HAURTZAINDEGIAREN ERAIKUNTZA LANEN LEHENENGO OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

San Prudentzio Ikastetxearen aldamenean Haurtzaindegia eraikuntza lanen obra zuzendaritza daramaten udal arkitektoek lanen lehenengo obra-egiaztagiria luzatu dute. Lehenengo obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HOGEITA ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA HAMABI EURO eta ZAZPI ZENTIMOtakoa (27.512,07 €) da. Lan hauek Miguel Imaz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Haurtzaindegia eraikuntza lanen lehenengo obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IX.- HAURTZAINDEGIAREN ERAIKUNTZA LANEN BIGARRENGO OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

San Prudentzio Ikastetxearen aldamenean Haurtzaindegia eraikuntza lanen obra zuzendaritza daramaten udal arkitektoek lanen bigarrenengo obra-egiaztagiria luzatu dute. Bigarrenengo obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HOGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO eta LAU ZENTIMOtakoa (24.372,04 €) da. Lan hauek Miguel Imaz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Haurtzaindegia eraikuntza lanen bigarrenengo obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

...///...

...///...

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du datorren asteartean, arratsaldeko sei terdietan, ez-ohiko osoko bilkura egingo dela, hauteskunde mahaietarako mahaikideak zozketa bidez aukeratzeko.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

